

KATALOGOA: PERTSONA KONPROMETITUA IZATEKO

(Eta mundua aldatzeko...).

BANAKAKO KONPROMISOAK

- 1) **ERREALITATEAREN IKUSPEGI KRITIKOA LANDU. ERREALITATEAREN INGURUKO KONTZIENTZIA INFORMATU ETA KRITIKOAGOA LANDU.** Horretarako, bilatu bestelako informazioa, erabili komunikabide txikiak, espezializatuak (horietako asko digitalak), komunikabide handien artean ezkutuan geratzen den informazio kritikoa eskaintzen dutenak; esaterako: ahaztutako gatazkak, produktu jakin batzuen ekoizpenaren atzean dauden lan eta ingurumen baldintzak, pertsona babesgabeen bizi-baldintzak eta abar. Azken finean, modu lasai batean gertaeren arrazoiak sakonki aztertzen dituzten eta errealitatera hurbildu nahi duten kazetaritza-ekimenak.



- 2) **KONTSUMO ARDURATSUA EGITEN SAIATU.** Gure ohiturak gizarte, lan edo ingurumen izaerako gai orokorrekin lotuta daudela konturatzea. Horretarako, zerbait erosteko unean ez dugu soilik prezioa kontuan izan behar. Ondo pentsatu eta produktu bakoitzaren atzean dauden lan, gizarte eta ingurumen baldintzen inguruko informazioa ezagutu behar dugu. 4) Gure ohituren garrantziaz ohartu behar dugu, bizimodu xume eta koherenteago bat izaten saiatu, gure balioen arabera.



Horretarako, honakoa egin dezakezu:

- Beharrezkoa dena baino ez erosi
- Objektuak birziklatu eta berrerabili
- Botatzen dugun elikagai kopurua eta sortzen dugun hondakin kopurua ahal beste murriztu
- Ekonomia solidarioko enpresetan erosi (ondasun eta zerbitzuen hornitzaile gisa). Ideia batzuk:



Erabili banak etikoa, Fiare, esaterako

<http://www.fiarebancaetica.coop/>



Bidezko merkataritza dendetan erosi, hala nola Kidendan.

<http://kidenda.org/es-comercio-justo>



Erabili ekonomia solidarioarekin bat egiten duten energia enpresak, esaterako, Goiener.

<https://www.goiener.com/>



Erabili ekonomia zirkularra aplikatzen duten dendak, produktuak berrerabiliz eta gizarteratzea sustatuz, esaterako, Koopera.

<http://koopera.org/>



Sartu kontsumo talde batean.

Idea gehiago aurkituko dituzu lotura hauetan:

[REAS EUSKADIKO ENPRESA ETA ERAKUNDE SOLIDARIOEN ZERRENDA](#)



[EKONOMIA SOLIDARIOAREN V AZOKA](#)



[PARROKIETARAKO PRAKTIKA EKOLOGIKO EGOKIAK](#)



✚ Norberak egindako produktu eta zerbitzuak erabiltzea. Dirua aurrezteaz gain, norberaren talentua deskubritu eta sustatzeko aukera ematen du, eta borondatea lantzekoa.

**Arduraz kontsumitzearen garrantziaz kontzientzia hartzeko,
sartu lotura honetan eta jolastu!**

www.aquenotelogastas.com



Gastuen proportzioak
ikusarazi eta ekonomiaren
inguruan zalantzak argitzeko
jolas-proposamena

**3) NIRE ERABAKIEN ERAGINPEAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK
ERRESPETATZEA: ALOKAIRU-KONTRATUAK, LAN KONTRATAZIOA,
BERDINTASUNEZKO HARREMANAK...** (Informazio gehiago:

KRISTAUEN KONPROMISOAK KRISIAREN AURREAN



Gizarte aintz baina kohesionatuaren eraikuntzan, pertsona guztiek eskubide eta aukera berdinak izan behar dituzte, hiritar partikular garen aldetik, gure balio eta ekintzak ere nabarmenduta. Alderdi pertsonalean eta egunerokotasunean, prekarietate egoera batzuk mantentzea bultzatu dezakegu ala horiek saihesten (edo, behintzat, leuntzen) lagundu. Pertsonen eskubideak errespetatzen dituzten “eguneroko” praktikak antzeman behar ditugu:

3.1) **Etxebizitza baten alokatzaileak bagara:** Etxebizitza-alokairu edo azpi-alokairu kontratu bat sinatu eta bertan erroldatzeko aukera eman.

3.2) **Pertsona bati lana emango badiogu:** Lan-kontratu bat sinatu, lana ordu batzuetakoa bada ere, eta mugarik gabeko kontratazioa sustatu. Baldintza duinen araberako kontratazioa egin.

3.3) **Zerga arloan arduraz jokatu:** Gure zergak ordaintzearen garrantziaz jabetu, horrekin zerbitzu publikoak ordaindu eta kohesio soziala eta denon ongizatea mantentzen laguntzen baitugu. Horrek esan nahi du:

- ✓ BEZa beti ordaintzea eta gure hornitzaileei berau eskatzea.
- ✓ Enpreetan zerga gutxiago ordaintzeko legezko trikimailurik ez erabiltzea.
- ✓ Salerosketetan diru beltzik inoiz ez onartzea.
- ✓ Aberastasun eta diru-sarreran gaineko fiskalitate progresiboa babestea;
- ✓ Gobernuari eskatzea zerga-bilketa herritarrentzako osasun laguntza, hezkuntza eta gizarte arloko babes unibertsal gisa erabil dezaten;

3.4) **Enpatia lantzea:** Indibidualtasuna, jabetza eta hedonismoa ardatz dituen gizarte batean bizi gara. Besteen mina eta sufrimendua ez dira kontuan hartzen.

Lotura sozialak asko ahuldu dira. Pobrezia, gizarte-bazterkeria eta minak markatutako beste egoera batzuk normalizatzeko arriskuan gaude, axolagabetasunez jokatzeko eta ikusle soil gisa begira geratzeko arriskuan, edo are okerrago: konfiantzarik eza eta mespretxua sortzen dituzten estereotipo eta aurreiritzien arabera jokatzeko arriskuan.

Horregatik, enpatiaz jokatu behar dugu, gure aurreiritzi eta estereotipoak gainditu.

Lotura hauetan aurreiritzi eta estereotipoak gainditzera bideratutako dinamika, irakurketa eta kanpainak aurkituko ditugu:

"ARGI IBILI, NO TE ENCALLES" ESTRATEGIA: "Argi Ibili! No te encalles" Bilboko Elizbarrutiko Caritas burutzen ari den estrategia bat da, etorkinei buruzko aurreiritzi eta estereotipoak alde batera uzteko helburuarekin.



GAUZAK EZ DIRA DIRUDITENA (LAS APARIENCIAS ENGAÑAN).

Egin diezaiogun aurre arrazismoari. Nazio Batuen Kanpaina. Irudi batzuk ikusi eta gure ustez bertan agertzen diren pertsonen zein lanbide duten esan behar dugu. Esperimentu horren bidez erakutsi dute gauzak ez direla diruditena.



HORMA APURTU (ROMPE EL MURO):

UNICEFen kanpaina bat da. Horren bidez, milaka haur etorkinek Europara heltzeko bidean aurkitzen dituzten oztopoen gaineko hausnarketa proposatzen da.



ZURE AURREIRITZIAK BESTEEN AHOTSAK DIRA (TUS PREJUICIOS SON LAS VOCES DE OTROS):

Ijitoen aurkako aurreiritziak bertan behera uzteko helburua duen kanpaina, Secretariado Gitano Fundazioarena.



EMAKUNDEREN KANPAINAK.

Balio aldaketan aldeko sentsibilizazio kanpainak, gure gizarteko genero rola eta estereotipoak ezabatzeke.



ZURE BABESA BERE ATERPE (TU APOYO SU REFUGIO)

Caritas Bizkaiaren sentsibilizazio estrategia errefuxiatuei harrera duina egitearen alde, pertsona horiekiko konpromisoa adieraziz, jatorrizko herrialdeetan zein bidean daudenean.



KONPROMISOAREN EREMU KOMUNITARIOA

Gizarte eraldaketaren bidean, maila indibidualean egin ditzakegun ekintzez gain, kooperazioan oinarritutako ekimen kolektiboak eraikitzea funtsezkoa da.

Ondoren, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala¹ osatzen duten plataformak aurki ditzakezu. Gizarte ekimenen inguruko informazio interesgarria aurki dezakezu, eta baita konpromisoa hartu ere.

[SAREEN SAREA](#)



[SAREEN SAREA ZORAGARRIA DA PARTAIDE IZATEA BIDEOA](#)



Komunitate ekimenekin konpromisoa har dezakegu, hainbat ikuspegitik:

- 1) Ekimen horien inguruko ekitaldi, ekintza eta deialdietan parte hartzea:** Círculos del silencio, Munduko arrozak, BesteBik deitutako kontzentrazioak, pobreziaren aurkako nazioarteko eguneko jarduerak (urriak 17); auzoan, herrian, eskualdean egiten diren beste ekimen komunitario batzuk. **Horretarako, ezagutu, horien inguruko informazio bilatu, horietakoren batera gerturatu eta abar egin beharko duzu.** Batzuetan, gaintu beharreko lehenengo oztopoa parte hartzeko ditugun aukeren ezagutza falta da. **Errealitatea ezagutu eta gerturatzeko egitekoa interesgarria izan daiteke taldean lantzeko.**
- 2) Boluntario moduan gizarte erakundeetan lan egitea:** Proiekturen batean denbora eskaini eta elkarte edo erakundearen parte-hartze eremuetan konpromisoa hartu (parte-hartze organoak, prestakuntza, deialdiak, bilerak, kontseiluak...).

[BIHOTZETZ BOLUNTARIOEN TESTIGANTZAK](#)



[PERTSONA APARTAK BIDEOA](#)



- 3) Bazkide-emaile moduan laguntzea,** ekarpen ekonomiko bat eginez.
- 4) Kooperatibista izatea eta ekimenaren zabalkunderako ekintzetan eta parte-hartze organoetan aritzea:** Esaterako, Fiare, Goiener, eta ekonomia solidarioaren arloko beste erakunde batzuetan. Horietan pertsonak ez dira bezero soilak, ekimenaren parte ere badira.
- 5) Nire auzoan edo inguruan gizarte ekimenen baten sorkuntza sustatzea.** Errealitate, pertsona talde edo eremu geografikoren batekin lotutako gizarte ekimenen bat egiteko beharra ikusten badugu, horretan parte hartu dezakegu. Gomendagarria da taldean egitea (inplikatzeko den pertsona talde gisa) eta sareko lanaren bidez (inguruan lan egiten duten beste gizarte talde batzuekin batera).

¹ EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA: Herritarren parte-hartzean oinarritutako eta irabazi asmorik gabeko erakundeek osatzen dute. Pertsona guztion eskubideen defentsa eta interes orokorra sustatzen dute, bereziki babesgabatasun egoera handiengan dauden pertsonena.